

# DIKTADURETAKO GAUZAK

Aintziña-aintziñatik Ipar-Ameriketara zaarrentzako etxeak bear zirala entzun izan genduan. Baita be mojak arduratuta ebiltzala arazo orretan.

Orain gure artean be arazo berbera etorri jaku; arresidentzien bearra.

Franco'ren azkenengo denporetan milloei asko eralgi ziran Donosti'an olako erresidentzi bat egiteko esmoz. Antza, España Estadu osoakoak bertan pillatzeko-edo.

Azkenean orduko bosteun milloei pezetok ezertarako ez dan etxe aundi-uts baten gelditu dira. Urteak eta gazte ganberroen kristal-apurtze ta ganorabakokeriak alperrik galtzen.

Lejonan, Unibertsidadearen ondoan gaixo-etxea ondo letorkela-ta, zortzireun milloiko etxe aundi ikaragarria egin eben, Basurto'ko Ospitalaren orde: BIzkaiko Aurresti Kutxak emondako dirua ta Gaixo-Etxeko ba-

tzordearena bertan sartuaz. Guzti ori ezertarako ez zan izan. Eta beste seireun milloei bear zeozertarako izan daiten.

Eta, Gasteiz'en, zer egin eben? España'ko Osakuntzakoek egin-dako erraldoiak zazpireun milloei balio izan ebazan egin ebenean. Bederatzi oiñekoa, Gazteiztarrok umore onaz «Eutanasikoa» deitzen asi ei ziran etxe orreri. Uri barruan, aundiegia, nagusiarentzat. Geienak erri txikitakoak izanik bertan ez eben aurkituko giro onik.

Orain zorionez, Araba'ko Aldundiak, Diputaziñoak, eta Eusko Jaurlaritzak onurea atara dautsoe erraldoi orreri. Ume atzeratuentzako egoitza bertan eratu dabe.

Eta ingurutako lur batzuk erosituta gure Ertzaintzarako egokiak diran lanak eginda, ez da alperrik galdu Estaduak egin izan eban etxe tzarra.

Aspaldian zartzaroko arazoak konpondu guran lan egiten asiak

gara eta asko berba egiten da «irugarrien adin» orri daukan mingostasuna kendu naian.

Zarrentzako Erresidentzi-Egoitz uriburuetan be jende asko bizi da ta ondo egongo dira. Baiña kontuan artu bear dira errialdeak eta eurotan antolatu ain aundi izango ez diran etxe baketsuak. Olan, pertsona nagusi oneik ez dira atara ta urrinko ainbeste euren girotik.

Beste leku batzuetan, Araba'n egiten dabenez, gizon eta andra adiñekoek euren etxeetan aurkitzen dabe diru naiz laguntza: olan lan barik dagozan gazteei zeregiña ta dirua emoten dautsee, zaarren etxeetan lan egiñaz eurok zainitzen.

Ezin ukatu, gauza batzuetan beintzat obarantz goazanik urteotan. Ia ba, gizartearen utsuneak betetzen doguzan apurka-apurka gure alegiñez.

YONE'k

## IKERTALDIA

Arteta eta Orbe tar Imanol'en  
oripenez.

Etorriko yatzu ikertzen sendia,  
gaur dator zu ikusten, anai gaztia.

\* \* \*

Obeto nagola osagillak diño,  
ta ataritzen nabe, bai, baratzera.  
Gaztia izan arren, orain gauzeza,  
ta Aberri maitia menperatua...  
Zer daukot aurrian? Barriro espetxera.  
Benetan illuna etorkizuna.  
Alaya ta poza ezta zeuretzako,  
gudari gaixoa azpiratua.

\* \* \*

Poztu zaitez, gaur ba, diño gaizo-zañak,  
gaur da zeuratzako, ikertaldia.

Matrallatik bera negarra dario,  
nigandik urruntxu, gelditu da.  
Nik, izparingian begiak lotuta,  
biotza gogortzen dot, bitartian.  
Nire anai txikia! besarkatu gure  
negarrik ein barik, bere aurrian.  
Anka bat bakarrik, ezin naz zutundu.  
Eta bera eztator miñez, nigana...

UTARSUS